

Kultura tradizionalaren gaurkotze saio batzuek. Berri, Jostari, Antzerki eta Folklore taldea

JOSU CHUECA INTXUSTA

SARRERA

Errealitate nazionalen pizkundeak lagundu nahian eta kultura eta herri ezberdinei zegozkien eskubide politikoak erreibindikatzeko asmoz Europan zehar azken bi mendeetan sortutako mugimendu abertzaleek egundoko garrantzia eman zieten bai hizkuntzei bai hauen inguruan bultzaturiko adierazpen literarioei. Izan ere, bertze esparruen artean, oso nabarmenak ziren historiaz kutsatua zegoen literatura, gaur egun eleberri historikoa deritzoguna, eta iraganeko iturrietan edaten zuten Antzerkia zein Folkloreak. Gibelego garaietara jotzen zuten etorkizunerako bidea funtsatu behar zuten euskarriak lortzeko, joaera eta etorrera zituen mugimendu bikotza burutuz. Euskal Herria ez zen salbuespen bat eta azken gerrate karlistaren ondorengo urteetan emandako loraldi politiko zein kulturalean antzeko bilakaerak agertuko zaizkigu. Bai Nazionalismoak bai Foruzaletasunak, beren egitura ideologikoetan iragan historikoari emandako garrantziaz gain, aintzinako kulturako zenbait adierazpen zainduz, landuz eta hedatuz beren geroko mezuak zabaltu zituzten.

Dena den, urte hauetan burututako ahaleginak ez ziren batere errazak izan. 1865tik aurrera Euskal Herriak, nahiz eta tokian tokiko ezberdintasunak ezagutu, bizi izan zuen Industrializazioa zela eta, izugarritzko aldaketa gizaekonomiko zein kulturalak pairatu behar zituen. Hau zela medio, lehenengo gizaldietan emeki emeki bermatzen ziren mota guztietako aldaketa eta bilakaerak, beren garapen abiadura bizkortu zuten, urte gutxitako epean, benetakako “bizimoduen iraultzak” martxan jartzeko.

Abagadune honen erdian ohizko kultura kokaturik zegoenez ezinbertzekoa zuten garai hartako kultur gizonen, zein politikariek premiazko erantzunak ematea. Batzuek, "Darwinismo" kultural baten pean mugituz eta sasi aurrerabide baten gatibuen antzera, aintzinako kulturari bizkarra eman zioten bitartean, bertze batzuek, kultura hau arrisku bizian ikusiz iraganetik zetozen eredu eta adierazpen kulturalak birbaliatzen saiatu ziren.

Azken hauek, bai erakundeen bidez (*Asociación Euskara de Navarra*, Bilboko *Sociedad Euskal Herria...*) bai aldizkarien bitartez (*Revista Euskara de Navarra*, *Euskal Erria*, *Euskal Erriaren Alde*, *RIEV*, *Antzerti*, *Yakin-tza...*) edota ekintza eta ekitaldi askori esker (Fêtes de la Tradition Basque, Euskal Joku-Loreak, Olerki Egunak, Antzerki eta Folklore emanaldiak, Bertsolari saioak...) XIX. mendeko hirugarren herenetik 1936.ko gerla ailegatu bitartean, aldatzen ari zen herri honetan, momentu hark eskatzen zituen erronkei aurre egiteko kulturaren esparru gehienetan ziharduten. Iraganetik zetorrena gordez eta indartuz.

Gaur egun, aldaketen prozesua amaiturik egon beharrean, Euskalherriko eskualde eta sektore orotara zabaldu egin denean iragan eta gaurkoaren edota etortzekoaren arteko dialektikak izugarrizko garrantzia hartu du. Hau dela eta, arras bidezkoa deritzogu aurreko saioei, apalak ba ziren ere, begirada bat botatzea, gaurko lehian "ohizkoak", iraganaren ondarez jabetuz, bere etorkizuna izan dezala. Helburu hau bete nahieran, eremu zehatz batetan, hau da, antzerki arloan egindako zenbait inisiatiba, Nafarroan 1933-19365.eko bitartean "Jostari" taldeak burututakoak aztertu digutu, kultur eremu guztiak jorratzea gehiegizkoa izanen litzatehelako eta era berean gure historiako zati eta pasarte ezezagunak berreskuratu behar ditugulakoan gaudelako.

EUSKAL ANTZERKIAREN GARAPENARI, BEGIRADA BAT

XIX. mendean barrena eta gure gizaldiko lehenbiziko hamarkadetan Europako zenbait herritan pizkunde abertzalearekin batera "Antzerki Nazional" deitutakoak jaio ziren. Norvegia eta Irlandako adibideak ditugu aipagarrienak. Herri hauetan, Henrik Ibsen eta William Yeats bazalako idazleek beren antzeslanen bitartez mugimendu nazionalistei bere laguntza eskeini zieten, legendetan oinarritzen ziren obrak idatziz eta herriko tradizioak antzestazaziz, propaganda politikoak nekez zabaltzen zituen ideial herriratzea lortu zutelarik.

Euskal Herriari dagokionez oso goiztiarra dugu antzerkiaren erabilpena, antzeko xede politikoak aitzinat eramateko. Batzutan antzerkia euskalduntze lanabestzat hartuta, hauxe izan zen Resurrección María Azkueren kasua eta berak antolatutako taldea eta antzeskizuna *Vizcaytik Bizkaira*. Bertze kasuetan berriz tresna propagandistiko zuzentzat erabilia. Bigarren maila honetan aipatzekoak dira Sabino Aranaren idazlanak nun "antzerki Nazionala"ren beharra aldarrikatzeaz gain, ikuspuntu propagandistiko batetik, ere, antzerkiaren ezinbertzeko errola azaltzen zuen. Honela zioen 1895.ean berak "Bizkaitarra" aldizkarian gai honi buruzko izkiriaturako artikuluan batetan:

Propaganda bide bat, zenbat eta hedatuagoa eta sakonagoa, zenbat eta jende gehiagoarengana iristen den eta honengan sortzarazten duen eragina haundiagoa izan, orduan eta garrantzitsuagoa. Zabalpen maila batean, aldizkako prentsa komunikabide garrantzitsuena dela bistakoa dugu, herri guztietara aldi berean iristen delako eta jauregi aristokratikoan sartzen den bezala baserriarraren eskaratz apalean barneratzen bait da. Egunkariaren ondoren, eta ahozko propaganda zein akintzakoa aparte utzita, Antzerkia dugu hedapen aldetik mediorik eraginkorrena. Sakontasunari dagokionez, gizaki orok bere akintza libreetan parte hartzen duten bi abalmen ditu: Gauzak ezagutzeko duen Adimena, eta Borondatea, zeinarekin ontzat hartzen duen guztirantz doa. Propagandaren helmuga adimena etsitzean eta borondatea limurtzea eta mugiaraztean datza. Egunkaria adimenera eta bihotzera batera iristen da, baina gehiengoarentzat idazkera hitza baino hortzagoa denez, horren ondorioak adimenean borondatean baino eragin haundiagoa du. Liburua eta Antzerkiari so eginez, lehenak bigarrenari propagandaren sakontasunean abantaila kentzen ba dio ere, bigarrenak, hedapenean lehena gainditu egiten du. Antzerkia, adimenari dagokionez sakontasunean zabaltasunean baino ahulagoa izan arren, borondatean, ostera, zeharo eraginkorra da. Ez du ezertaz etsitzen, baina indar osoz bihotza mugierazten du. Aldez aurretik adimenean aragiten duten lan propagandistikoak martxan jartzen ez ba dira, Antzerkiak, inpresio igarale bat bertzerik ez du lortzen. Baina, bertze bideen bitartez adimena argitu ba dute, orduan Antzerkiaren eragin propagandistikoa lur ongarrituak eta ureztatuendako beroa bezain onuragarria da.

Ikusten da, ba, propaganda bide bezala Antzerkiaren munta Beraz behar beharrezkoa da, antzerkiaren bitartez bizkaitarraren begien aurrean, bizirik dagoen koadro bat baino garbiago, menderapen espainairrak bere aberrian, bai moralki bai fisikoki, sortarazten dituen izugarritzko hondamenak jartzea eta sentiaraztea, bere barne sentibera, bere duintasuna hunkituz. Jainkoak, guk espero dugun eran, babesten ba gaitu, eta berari arras gutxi atxiki zaizkion har zenbaitek eragozten ez ba digu, premi haundiagoek uzten diguten neurrian, apeza eta bizkaitar ona den Azkuek hasitako propaganda abertzalearen bide haundi honi jarraitu behar diogu.

Zenbait urte beranduago teoria hauek praktikara eraman nahian aitzindari abertzaleak berak antzeskilar batzuk idatzi zituen. De la Granja historiagileak dakarrenez *Libe* (1902-1903) eta *De fuera vendrán* (1897-1898) antzeslan luzeetatik aparte, honako hauek ere, *La bandera fenicia*, *Los dos negociantes y el zapatero*; *Tula y Mari*, eta *Galozko* idatzi zituen buruzagi nazionalistak.

Lan hauek idatzi zituenerako, jadanik euskal antzerkiak bere lehen urratsak emanak zituen. Izan ere, azken bi mendeon arteko urteetan antzerkigile belaunaldi jori bat garatu zen Euskal Herrian. Honen ondorioz XX. gizaldiko lehen hamarkadak emankorrak ziren oso. Antzerki klasikoaren antzeskizunen ugaritasunari, eremu berriak, hots, Opera, saio koreografikoak, egile kanpotar anitzen lanen euskeratzeak,.. gehitu zitzaizkion, idazle, musiko eta artista asko "Talia"ren artean, su eta gar, aritu zirelarik.

SASKI NASKI eta OLDARGI, TALDE AITZINDARIAK

Urte hauetan sortu ziren talde berrien artean izan ziren aintzinako adierazpen kulturaleri, antzeste era berriak erabiliz, lehentasuna eman zietenak. Zentzu honetan SASKI NASKI, OLDARGI eta JOSTARI taldeak aipatu behar ditugu. Hauetako lehena, Donostian, "II. Euskal Astea" zela eta, 1928.ean, Antonio Orueta eta Gregorio Mugikaren eskutik sortu zen. Atzerrian zeuden errusiar batzuek eraturako "Korobok" ikuskizunaren ereduari jarraituz, "SASKI NASKI", Gregorio Mugikaren hitzetan: *Hondorik gabeko otartxo bat da, nundik artsaintza batek, gure kantak, dantzak, ipuinak, gure herritarren sentimendu eta hezkak, gure herrian jatorra eta zintzoa dagoen guztia atera egingo du*. Antzerki lan honetan, euskal folklorea eta azken garaian ospe handia lortu izan zuten operen zati batzuk elkartzen ziren aintzinako dantzei erakuspen berri bat eskeiniz. Esaterako, Guridiren "Mirentxu"ren ondoren, Aita Donostiak moldatutako "Irule"en kanta herrikoia zetorren. Bide batez, eskualde ezberdinetako dantzak, Zuberokoak, Baxenafarrakoak eta Bizkaikoak doinu eta kanta herrikoiekin tartekatzzen ziren.

Hildo honetik egindako hurrengo saioa Bizkaian gorpuztu zen, 1930.ean "Pizkundera" erakundearen baitan M. Sáinz de Taramona, Enrike Orueta, Ceferin Jemein eta Manuel de la Sotak OLDARGI taldea sortu zutenean. Honek, Donostiako SASKI NASKIrekin gonparatuz berritasun batzuk zehartzan. Alde batetik, antzertilarien partaidetza askoz haundiagoa. OLDARGI bere aurkezpena egin zuen egunean, 1930.ko martxoaren 3an, hain zuzen ere, 150 antzesle taularatu zituen. Bertzetik, ikuskizunarehn egituran bertan zezan aldaketa. Hau da, OLDARGI Kepa Enbeita bertsolariak kantatutako bertso batzuen bitartez ekitaldi ezberdinei nolabaiteko elkarrizketak gaineratu zizkion, antzeskizun osatuago bat burutuz.

Dena den, ezberdintasun hauetatik kanpo, Bilboko abertzaleek gertututako emanaldia Donostiako SASKI NASKI jorratzen zituen irudi antzekoak isladatzen zituen: Desagertzen ari zen Bizkaia tradizionalaren irudiak, alegia, *Gure Asaben aldi*, *Donibane Gaua*, folkloreako dantzekin, Kaxarranka, Ezpatadantzarekin, tartekatzen ziren. OLDARGI prestatu zuen emankizun hau, denbora igaro zen heinean, aberastu egin zen bertze ekitaldi batzuk, *Otxandioko Arotzak*, *Lau Urtaroak*... gaineratuz, baita bertze antzeskian, *Negarrez igaro zen atzua*, *Iru Gudari*, *Libe*... taularatuz ere.

Talde honen entzute eta etengabeko aktibitateak garai hartako euskal antzerkiaren egoera ezin hobea isladatzen zuen. Izan ere, II. Errepublikako urteak arras oparoak izan ziren euskal antzerkirako. Antzeskizun ugaritasunatik at, "Antzerti" bezalako aldizkaria, zuzen zuzena antzerki arloari eskeintzia, eta EUSKALTZALEAK bezalako erakundeek antolatutako "Antzerti-Egun"ei esker, Euskal Herrian sekulan izan ez zuen hedapen eta eragina lortu zuen arte zahar honek.

JOSTARI. EUSKAL KULTURA TRADIZIONALA JORRATU ZUEN TALDE NAFARRA

Nafarrora ere ailegatu ziren zeregin kultural berri hauek. Horrela, 1931.tik aurrera, euskal nazionalismoaren erakundeak gauzatzen ziren neurrian akitaldi eta aktibitate politikoak antolatu ez ezik, laister ekintza kulturaleri ere ekin zieten. 1932.ean bertan Iruñako abertzaleek zenbait batzorde atondu zuten musika, antzertia eta dantzak irakasteko asmoz. Izan ere, antzerki talde bat osatzeko, José Goñi Berrondo zuzendaritzaren pean, gazte abertzale multzo bat saioak egiten hasi zen. 1933.ko ekaina arte prestakizunak oso motel ba zihoazen ere, orduetik aurrera abiadura eta erritmo bizia hartu zuten Eratutako taldeak JOSTARI izena hartu zuen, bere baitan antzeslarien andan ederra izan ez ezik, Xabier Ziga, Leo Muro, margolarien eta Cabasés eta Battllori jaazkiegileen laguntza ere edukiz.

Sortu berria zen JOSTARIk Arturo Kanpionek idatziriko “Pedro Mari” kondaketa taularatzea erabaki zuen. Idazle nafarraren lan hau, nahiz eta antzerkirako idatzirik ez izan, Bilboko “Juventud Vasca”ren zuzendari eta idazle abertzalea zen Alfredo Etxabek antzesteko moldatua zuen, 1922.ko martxoan lehen aldiz taularatuz.

Hau zela eta, horrela zioen *Eusko Deya* aldizkariak: “*Pedro Mari*” orain arte egin dogun antzerkirik abertzaliena, mamitsubena, politena, gogorrena da. Ikusi daben gustijak, abo batez, orixe diñue: “*Pedro Mari antzerki ikuskarija da: alde batetik, aberkoya ta ederra dalako; bestetik, egin leiken onduen antzestuten dabelako*”. Errepublikako urteetan, 1932.ko Aberri Egunean alegia, Bilboko OLDARGI taldeak berriro eman zuen antzeskizun hau. “Pedro Mari”ren argudioa honako hau zen: *Baztango Pagogaña baserriko pedro Marik Ameriketara joatea erabaki du zeren, Kataliñ, berak maitatzen duen Bai-gorriko neska ederra, bertze gizon batez maitemindurik bait dago. Konbentzioko gerlaren garaia dira eta bere etxaldetik abiatu ondoren, Cadizko itxasporturantz zihoala, Espainiako Carlos IVgarrenaren armadarako, indarrez, soldadu hartzen dute. Catalunya aldean dagoen muga zaindari zegoe-nean urrundik datorren euskal abaide bat entzuten du. Bera bezalaxe Frantziako armadan behartuta dauden baigorriar batzuk kantatzen ari dira. Hauengana jotzen du era, algara haundiz, elkarrekin festa eta dantzari ekiten diote. Horrela zeudela, Espainiako armadak bapateko eraso bat burutzen du, Pedro Mari frantziarrekin batera preso hartuz. Espetxeratua eta desertore iza-teagatik epaitua, azkenean fusilatu egiten dute.*

Antzeslan hau, gaur egun tesi-antzeslanen artean koka dezakegu. Garai hartako kritikariek ere zentzu horretan hartu zuten. Horrela zioen “La Voz de Navarra”k: Pedro Mari Euskal Herria da. Herri Honen bizitzaren osotasuna era basati eta bortitz batez mindua izan da, inguratzen duten herrien handikeriaren ondorioz. Bere herria bezain libre jaio zen eta libre jarraitu nahi duen Pedro Mari, halabeharrak zigortua bere anaien aurka burrukatzera joan behar du. Baina altxatu egiten da eta bere barnemuinetik zapalketa ororen aurka protestatzen du. Hau dela eta fusilatua izango da, paradoxikoki azpijale bezala, bere heriotza, herri baten askatasunaren irrintzi, bere odolez, ¡euskal odola! zigilatua izan zelarik.

JOSTARIk gertutu zuen bigarren lana “Emmanuel” izan zen. Gai erlijio-soa izan arren, Jesusen etorrera, hain zuzen ere, bere antzesteko eragatik

abangoardiako antzerkitzat har ziteken. Gaiari zegokionez nabaria zen oso idazle frantziarra zen Henri Gheonen eragina. Hau, Gide eta Copeaurekin batera, “*Nouvelle Revue Française*” aldizkariaren sortzailetariko izanik, 1924.ean LES COMPAGNONS DE NOTRE DAME taldea sortu zuen, antzerki kristau herrikoa birbaliozko asmoz. Aldizkari eta egunkari euskaltzaleen orrialdeetan Henri Gheonen lanak goraiatzeaz gain hemengo talde askok idazle frantziarraren antzeslanak euskeratu eta antzestu zituzten.

Hilo honetatik Xabier Vallejos idazle nafarrak prestatu zuen “Emmanuel” antzeskizuna. Gaiaren aldetik, Jesusen jaiotzaren inguruko pasadizo eta jazoerak, berritasunik ez zegoen sujeta hau antzerki erlijiosoan tradizio haundikoa bait zen. Dakigunez, Euskal Herrian bertan ezagutzen den lehenengo antzeslanak, “Gabon Gaberako Ikuskizun edo Acto para la Noche buena” gertaera jorratzen du.

Hala ere, Xabier Vallejos eta JOSTARIk burututako antzeskizunak, aurrekide honekin eta bertze antzekoekin gonparatuz berritasun nabarmen bat zuen, hau da, folklore eta euskal musika, hain tradizionala zen sujeta batean, txertatzea. Izan ere José María Beobide eta Hilario Olazaranez atondutako taxukerei esker bertako musika eta dantzak (Artzai Dantza, Sagar Dantza, Mutil Dantza, Unai Dantza...) laketzen ziren, betiko gaiari euskal kutsu bat emanez eta, era berean, euskal kulturaren adierazpen eta ohiturak gehien baloratzen ziren historia sakratuaren pertsonai zein pasartei lotuz.

1934.ko urtarrilean estreinatu zuten iruñeako Gayarre antzokian, egun batzuk beranduxeago Donostiara eraman behar zuten “Emmanuel”. Prentsa abertzal-eak zioenez bere xedea Eguberritako mistikari laguntza zen “*herri kristauaren leku anitzetan, Euskal Herria barne festaren alderdi fedegabea garrantzi haundiegia hartzen ziboalako*”. Antzeslana sei ekitaldietan banaturik zegoen, Hitzaurrea, Iragarkundea, Ikerkundea, Polaren Ostaturia, Belengo Enparantza, Gabona eta Epifania. Azken bi hauetan, lehen aipatu ditugun SASKI NASKI, ELAI ALAI, eta OLDARGIko saio koreografikoak antzeratuz, “Emmanuel” antzeskizunak bere zati ikusgarri eta gailenak lortzen zituen. Erran daiteke lehen ekitaldiak bukaeran suertatuko diren gertaera pozgarri eta zoriotsuaren prestaketa eta kontraesana direla nolabaiteko ezberdintasun nabaria finkatuz. Lehenbizikoetan, antzeman daiteke Ilunbean dagoen gizarteari Salbatzailea jaioko zaiola eta jaiotza azaroz inguraturik gertatzen ela. Jaiotzeko lekuri ez dago eta jendearen mespretxuz eta mesfidantzaz beharturik daude portale xume batetara joatera. Hortxe ikusiko du argia Jaungoikoaren semeak. Eta hau gertatzen den unetik euskal folklore eta musikak parte hartzen dute “*Jaungoikoaren aurrean euskal endaren jaialdi haundia adieraziz*”.

Hagitz garbi eta komenigarria ikusten zuten ohizko kulturaren eta obraren mezuaren arteko lotura garai hartako kritikoez: Emmanuel da Eguberritako gertakariaren gorespina eta herri mintzairaz egindako laudorioa. Emmanuelen Elizak egun hauetan ospatzen dituen gertakariaren pertsonak hartzen ditu eta mailaz beheratu gabe herri errealitatean bihurtzen ditu, bizi garen herrikoa alegia, jende apalek hobekiago uler dezaketen gauzetan zirrara sortarazteko. Egundako hauetan azaltzen diren jaiotzako batek, judutarren ohitura eta erak jarraitzen dituen hauetariko batek jende lauaren artean bihotzikara gutxi sortaraziko luke. Jaiotza honek, gure girora erakarria, herri ingurura,

bere gizasemez eta paisaiatz, hitz batez, gure herriaren adierazpen jatorra den guztietaz taiatua, nahitanaiez zirrara askoz haundiagoa sortu beharko luke.

Bi antzeslan hauekin 1936.ko gerratea ailegatu bitartean, Nafarroan eta Guipuzkoan barrena, aritu ziren JOSTARIkoak. Hala ere ez ziren horrela amaitu beren ahaleginak eta bertze antzeslanak prestatzeaz gain (Arturo Kanpionen “Larraldeko Lorea”, Alzaga eta Zapirainen “Txanton Piperrri” opera...) folklorea zabaltzeari buru belarri ekin zioten abertzale hauek. Beraien arduraz Iruñako haurrei folklorea irakasten zitzairen urtero zenbait jaialdi erraldoi antolatuz. Aipatzekoa da, “Jai Alai” pilotalekuan, Gaboneta-ko Errege egunean prestatzen zutena. Festa horretan Euskal Herriko lurralde guztietako dantzak erakusten zituzten, Bizkaiko Kaxarrankatik, Baztango Mutildantzaraino. Ondoko lerroetan 1934.ko urtarrilaren 14ean ospatu zen jaialdiko agitaraua dugu:

Lehena: Herrenkaketa orokorra.
 Bigarrena: Poxpolinen himnoa “PraPraPra”.
 Hirugarrena: Espatadantza, dantzari talde batek eskeinia.
 Laugarrena: Euskal Jota, Luperka, Agapita Andrea eta beren senarrek emana.
 Bostgarrena: Segardantza.
 Seigarrena: Gabonkanta.
 Zazpigarrena: Festako partaideek Jota eta Purrusalda.
 Zortzigarrena: Mutildantza.
 Bederatzigarrena: Txakarrankua, Olatzeko artzainek dantzatua.
 Hamargarrena: Ekialdeko Erregeen Agurra.

Jaialdi honen agitarauaren bitartez aise antzeman daitekena da erlijio eta euskal kulturaren arteko loturaren nahiaren borondatea. Hain ospetsua den Errege festaz baliatuz Euskal Folklorea plazaratzen da eta era berean folkloreak erakargarritasuna eta ikusgarritasunaz probetuz erlijio ospakizunak errezago herritaratzen saiatzen da.

Hala eta guztiz ere, JOSTARIren bizitza laburra izan zen. Proiektu berri batzuetaz orniturik zegoen talde honi, bertze erakunde euskaltzale guztiei gertatu zitzairen bezalaxe, 1936, uztailaren 18.ko altxamendu faxistaren zapalketa, bete betean ailegatu zitzaion. Taldea desiganda, zenbait partaidek atzerrira jo behar izan zuten. Esaterako, hauxe izan zen José Goñi zuzendari ohiaren kasua. Honek, Txilen zegoelarik, 1954.ean Daniel Aretxabalarekin bat eginik, berriro antzerki taldeak eta antzeskizunak prestatzeari ekin zion. Izan ziren, ere, hemen gelditu izan zirenak. Eta hauen artean zenbaitek, lehen erreprezioko urte latzak igaro ondoren, pixkanaka pixkanaka, JOSTARIk ireikitako bideak jorratzen hasi ziren. Honen ondorioz ikuskizun antzekoak, DUGUNA nabariena, prestatzeaz gain, kultura tradizionalaren esparruan belaunaldien arteko loturari eutsi zioten.

